

BALIO PROPOSAMENA

Gorabide, urritasun intelektuala duten familien elkarte bat da, eta bere helburua, desgaitasuna duten pertsonen bizitza hobetzea eta gizarte justuagoa eraikitzea da. Elkartek 2021ean ateratako datuen arabera, Euskadin urritasuna duten 9.964 pertsona daude.

Relación con la actividad según la discapacidad. Año 2021.
Unidad: Miles de personas (de 16 a 64 años).

	Personas con discapacidad entre 16 y 64 años	Activos	Inactivos	Tasas de actividad (%)
Total	1.929,40	668,2	1.261,20	34,6
Andalucía	378,8	113,2	265,6	29,9
Aragón	43,8	16,1	27,8	36,8
Asturias	55,2	16,4	38,8	29,7
Baleares	38,7	16	22,7	41,3
Canarias	88,9	22,8	66,1	25,6
Cantabria	29,5	11,4	18	38,6
Castilla y León	94,2	34,3	60	36,4
Castilla - La Mancha	93	36,3	56,8	39,0
Cataluña	326,3	115	211,3	35,2
C. Valenciana	198	68,2	129,8	34,4
Extremadura	45,8	13,7	32,1	29,9
Galicia	130,9	37,7	93,2	28,8
C. Madrid	204,8	86,3	118,4	42,1
Murcia	78,1	32,7	45,4	41,9
Navarra	20,1	6,5	13,6	32,3
País Vasco	83,2	32,3	50,8	38,6
Rioja	9,7	3,7	6	38,1
Ceuta y Melilla	10,3	5,5	4,8	53,4
miles de personas				

Fuente: El empleo de las personas con discapacidad, 2021 (INE)

Desgaitasuna duten pertsonak Espainiako Autonomia Erkidego bakoitzean.


Datu hauen berri izan genuenean, zerbait egiteko beharrean ikusi ginen. Beraz, Lantegi Batuak eta Gureak elkarteekin kontaktuan jarri ginen, Bizkaia eta Gipuzkoan urritasuna duten pertsonekin lan egiten duten enpresekin alegia, bertako langileek egunerokotasunean izan ditzaketen arazoez ohartzeko.

Beraz, hauei galdeketa bat egitea erabaki genuen, beraien ikuspuntua gertuagotik ezagutzeko. Behin baino gehiagotan errepikatu zen arazoetako bat arroparena izan zen; hau da, askok eta askok **zailtasunak erakutsi zituzten janzterako orduan eta arropak konbinatzerako orduan**. Hori dela eta, arazo honetan oinarritzea erabaki genuen, **baliabide desberdinak emango dizkien aplikazio bat sortuz**.

Esan bezala, aplikazioa, urritasuna duten pertsonen zuzenduta sortu dugu. Aplikazioa jeisterakoan, harpidetu egin behar da, 3,99€ ordainduz. Gainera, pertsona bakoitzak kontu bat sortu ahalko du bere izenean.

Urritasuna duten pertsonen buruzko informazio gehiago lortu eta erraztasunak eman ahal izateko, hauen familiarekin edota lagunekin kontaktuan jarriko gara, eta hauek beraien arropak bidaltzeaz gain, beraien gustu edo estiloaren berri emango digute. Erraztasun gehiago emateko, eguneroko eguraldiaren berri ere emango diegu, klimaren arabera jantzi daitezten. Gainera, astean behin urritasuna duen pertsona batek modelo lanak egingo ditu eta tendentzian dauden arropak erakutsiko ditu.

Erabiltzaileek aukera izango dute baita, hilabetean behin beraien konjuntua onena igo eta zozketa batean sartzeko. Parte hartzen duten guztien artean, konjuntua onena aukeratu dugu, eta sari bat irabazteko aukera izango du.



Lehen esan bezala, **gure helburu nagusia, urritasuna duten pertsonen egunerokotasunean janztea erraztea da**, eta horretarako beste aplikazio batzuek ematen ez dituzten baliabideak eman nahi izan ditugu, horien artean, bezeroekin harremanetan jartzea, beraien gustuak ezagutzeko, eta zerbiltzu pertsonalago bat ematea. Gainera, guk sortutako konjuntuen balorazioa egin ahalko dute 1etik 5 izarretara.